

2019-07-02ko UDALBATZA BEREZIA

Iruran, bi mila eta hemeretzigarren urteko uztailaren bian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar berezia egin du Udalbatzak, Gorka Murua Macuso alkatea buru duela.

-Azaldu diren Euskal Herria BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesús Leunda Gurruchaga, José Ramón Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: inork ez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENENGO GAIA

UDALBATZAREN DEIALDIAREN LARRIALDIA ONARTZEA.

Legearen arabera: "Gutxienez bi egun baliiodun aurretik egin behar da osoko bilkuretarako deia, presako bilkura berezien kasuan izan ezik, osoko bilkurak sendetsi beharko baitu presatasun hori." Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46. artikulua, 2 zenbakia, b) atala.

Presazko udalbatzaren arrazoia, Leticia Aristi Oria anderea zinegotzi karguan izendatzea da. Eta aipatutako denbora baina gutxiagoan deitu dela bilkurara.

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du orain zazpi egun izan zen beste plenoa eta han Alkateak esan zuen gaur beste plenoa izango zela baina atzo, astelehena, ikusita deialdia ez zegoela bidalita e-maila bidali zion alkateari galdezka eta ordu biak pasata gero deialdia iritsi zitzaion. Zortzi egun

izan dutela deialdia bidaltzeko eta horregatik ez dutela onartzen larrialdia eta bere botoa kontrako izango dela.

Alkateak erantzun du egia dela joan den plenoan esan zuela gaur izango zela pleno berria, baina agian izan dela udal teknikariaren errua ez bidaltzea lehenago.

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) erantzun du ez dela izan bakarrik idazkaria edo teknikariaren errua, alkateak deialdiaren gainean izan behar du eta sinatu ere.

Alkateak erantzun du zekitela plenoan izan behar zuela eta puntu bakarrarekin.

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/ PNV) erantzun du horregatik bidali zion alkateak e- maila galdezka plenoa zegoen edo ez.

Olaia Nieto Zinegotziak (EH Bildu) erantzun du agian lau urte pasatu ondoren konturatu direla zer garrantzia daukan deialdia bidaltzea denborarekin.

Bozketan jarri ondoren emaitza hau lortu da: 5 alde (EH Bildu) eta 4 aurka (EAJ/PNV).

Ondoren plenoaren larrialdiaren izaera onartu da.

BIGARREN GAIA

LETICIA ARISTI ORIA AND. ZINEGOTZIAREN KARGUA JABETZA HARTZEA.

Idazkariak adierazi du Leticia Aristi Oria andere izendatu dela udaleko zinegotzia Euskal herria Bildu aurkeztutako hauteskunde-zerrendan 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan eta aurkeztu duela hautatuen ziurtagiria eta ondasunen eta jardueren aitorpena.

Eta ondoren alkateak idazkariari formula hau irakurtzeko agindu dio:

“Bertaratutako zinegotziak zin egiten edo hitzematzen du karguaren eginbeharrak Konstituzioaren eta gainerako legeen arabera zintzoki beteko dituela”

Eta Leticia Aristi andereak baieztatu du: legeak horrela agintzen duelako zin egiten duela.

Eta Alkateak karguaren jabetza eman dio.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 19:45ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA